

ESPERIMENTUA

Esperimentu bat egingo duzu. Irakurri ondo zer materiala beharko duzun eta zer pauso egin beharko dituzun.

Pauso guztiak ondo egin ondoren, galderak erantzun.

Nola egin:

1. Lehenik eta behin patata zuritu eta erdibitu.
2. 2. Ondoren, egin zulotxo bat patata erdi bati.
3. Segidan, jarri gatz pixka bat patatan egindako zuloan.
4. Utzi horrela hiru edo lau egunetan.
5. Hiruzpalau egun pasa ondoren behatu zer gertatu den. Horretarako ikusmena eta dastamena erabili.

Materiala:

- Labana
- Patata
- Gatz



GALDERAK

- Zer egin du patatak gatzarekin?
- Digestio-prozesuko zein fasearekin erlazionatuko zenuke patatak gatzarekin egindako prozesua?
- Eta fase horretan zein urratsarekin?

